

## **Gros, Intxaurrondo Hegoa eta Loiolako Erriberetako haurreskola berriek ekainaren 29an irekiko dute izena emateko epea.**

*Zentro berrietan izena emateko ezohiko epea uztailaren 8ra arte izango da, eta irailaren 4an hasiko dira zerbitzua ematen haiek.*

Donostiako Udalak jakinarazi du ezohiko epe bat izango dela irailaren 4an irekiko diren haur-eskola berrietan izena emateko; izan ere, Haurreskolak Partzuergoarekin batera sustatu eta handitu egingo baita 0-2 urteko haur-hezkuntzako sare publikoa, eta, hala, haur-eskola berri batzuk ere izango dira.

Interesa duten familiek ekainaren 29tik uztailaren 8ra (biak barne) izango dute eskabideak Udalinforen bulegoetara bertara joanda aurkezteko modua. Deialdi hau 2025ean eta 2026an jaiotako haurren familiei eta legezko tutoreei egina da.

Hauek dira hiriko sarean sartuko diren haurreskola berriak:

- Donostiako Haurreskola – Gros.
- Donostiako Haurreskola – Intxaurrondo Hegoa.
- Donostiako Haurreskola – Loiolako Erriberak.

Ane Oyarbide Berdintasuneko zinegotziak azpimarratu duenez, «izena emateko aparteko epe hori berri ona da lana, bizitza pertsonala eta familia uztartu ahal izateko baliabide publikoak behar dituzten Donostiako familia askorentzat. Haurreskoletan plaza gehiago izateak eta plaza horiek eskuratzeko modua errazteak lagundu egiten du familiek euskarri gehiago izan ditzaten haurrak hazteko etapa garrantzitsu horretan».

Oiarbidek adierazi duenez, «zaintza- eta kontziliazio-politikak ere berdintasun-politikak dira. Badakigu zaintza-erantzukizunak oraindik ere ez direla berdindin banatzen gizonen eta emakumeen artean, eta, horregatik, haur-eskolak eta horrelako zerbitzu publikoak eskuratzeko aukerak handitzea funtsezko tresna da erantzukidetasun eta aukera-berdintasun handiagoa duen gizarte baterantz egiteko».

Bestalde, Arantxa Lopez Hezkuntza eta Gazteriako zinegotziak prozesu honetan parte hartzera animatu ditu zerbitzua interesatzen zaien familiak, eta azpimarratu duenez, «familia guztiek ezohiko epe hori ezagutzea nahi dugu, eta hezkuntza- eta kontziliazio-aukera hori baloratu ahal izatea. Gero eta eskari handiagoa dago zerbitzu honena, eta horri erantzuten dio haurreskola berri horiek irekitzeak, eta aukera ematen digu Donostiako auzo gehiagotara funtsezko zerbitzu publiko bat hurbiltzen jarraitzeko, bizitzaren lehen etapetatik izateko kalitatezko hezkuntzarako sarbidea», gaineratu du zinegotziak.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### Zentroz aldatzeko eskaerak

Plaza bat duten familiek edo ekainaren 26ko behin betiko zerrendetan lortu dutenek ere eskatu ahal izango dute haurreskola berriren batera aldatzea. Horretarako, beste inskripzio bat egin beharko dute, eta eskatutako dokumentazio guztia berriro aurkeztu.

### Egutegia

- Eskabideak aurkezteko epea: ekainaren 29tik uztailaren 8ra.
- Behin-behineko zerrendak argitaratzeko eguna: uztailaren 17a.
- Erreklamazioak eta zuzenketak egiteko epea: uztailaren 20an eta 21ean.
- Eskaerari uko egiteko epea: uztailaren 24ra arte.
- Behin betiko zerrendak argitaratzeko eguna: uztailaren 27a.
- Haurreskola berriak irekitzeko eguna: irailaren 4a.

### Haurreskola berriak

Hiru haurreskola berrien obrak duela gutxi amaitu ziren, eta guztira 89 plaza publiko berri izango dituzte 0 eta 2 urte bitarteko hurrek. Hala, orain arte mota horretako baliabide gutxiago zituzten auzoetan, hezkuntza eta kontziliazio eskaintza handiagoa izango da.

- Donostiako Haurreskola – Loiolako Erriberak, Gabriel Laffitte plazan kokatuak, 34 plaza izango ditu; horietatik 8 urtebetetik beherakoentzat izango dira, eta 26 urte 1 eta 2 urte bitarteko haurrentzat.
- Donostiako Haurreskola – Intxaurrondo Hegoa, Baratzategi kalean kokatuak, 21 plaza izango ditu: 8 plaza urtebetetik beherakoentzat eta 13 plaza urtebetetik 2 urtera bitartekoentzat.
- Donostiako Haurreskola – Grosek, Zemoria kalean kokatuak, 34 plaza eskainiko ditu, 8 urte baino gutxiagoko haurrentzat eta 26 urte 1 eta 2 urte bitarteko haurrentzat.

Edozein kontsulta egiteko, Haurreskolak Partzuergoaren Gipuzkoako Plangintza Sailera jo daiteke, helbide elektroniko hau erabilita: [planifikazioa.gipuzkoa@haurreskolak.eus](mailto:planifikazioa.gipuzkoa@haurreskolak.eus).